

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Gamiz-Fika



Aurkibidea

Udalerria: Gamiz-Fika

Sarrera



Gamiz-Fika Bizkaiko barrualdean eta erdialdean dagoen udalerria da, Mungialdeko eskualdean kokatua. 1928an elkartu ziren Gamiz eta Fika elizateak, udalerri bakarra osatuz. Iparraldean Meñaka du mugakide; hegoaldean Zamudio, Lezama eta Larrabetzu; ekialdean Fruiz eta Morga; eta mendebaldean, berriz, Mungia.

- **Biztanleak:** 1.345
- **Euskaldunak:** %71,99

Ahotsak.eus-eko datu orokorrak

- Hizlariak: **1**
- Zintak: **1**
- Pasarteak: **10**
- Transkribatutakoak: **0**
- Audioak: **0**
- Bideoak: **10**

Proiektuak

- IRLAren Bizkaiera Bilduma

Hizlariak

Manu Zugazaga Martikorena (1940)



Olagorreta auzoko Etxezarre baserrian jaio zen 1940an. 10 urterekin Zornotzara joan zen Karmengo fraideetara. Hiru urte egin ostean, fraidetza utzi eta baserrira itzuli zen. Handik Bilbora joan zen lanera, Metropoli tabernara, soldadutzara joan arte. Soldaduska ostean, Madrilera joan zen lanera Conde Duque hotelera. Han sei hilabete egin zituen eta berriz itzuli zen. Ezkondu eta bere taberna jarri zuen.

Pasarteak gaika

Herri honetan landu eta transkribatu diren pasarteak, gaika antolatuta.

Transkripziorik gabeko pasarteak

Ondorengo pasarteak gaika landuta eta kodifikatuta daude, baina oraindik transkribatu gabe.

1. Hogeita bost urtez tabernan (GAF-001/002)

Fraide eskolan ikasi zuen. Zenbait lanen ondoren taberna hartu eta bertan gelditu zen.

2. Zein afizio duzu? (GAF-001/003)

Pala eta mendia maite ditu. Sukaldaritza ere gustuko du, jaietako txapelketetan parte hartzen du.

3. Patata tortilla nola egin (GAF-001/004)

Askotan irabazi du patata tortilla lehiaketa.

4. Marmitakoaren errezeta (GAF-001/005)

Marmitakoaren errezeta.

5. Mendira sarritan bakarrik joaten da (GAF-001/006)

Iloba ere eraman izan du, bizkarrean. Mikel zaraterekin ere ibili da askotan.

6. Seminariotik mendira (GAF-001/007)

Mikel Zarate seminarioan ezagutu zuen.

7. Euskaraz egitean zigorra (GAF-001/009)

Fraide eskolan apur bat egiten zuten euskaraz. Gamizen, berriz, gaztelaniaz, euskaraz entzutekotan zigortu egiten zituen ikasleak maisuak.

8. Bilbon ere euskaraz (GAF-001/011)

Dagoeneko bezeroek euskaraz egiten diote.

9. Euskara familian (GAF-001/013)

Seme-alabei euskara transmititu die euskara, baita bere arrebak ere. Zuberoan gehiago kostatzen zaio euskara ulertzea, baina bestela errez.

10. Euskararen egoera zein da zure iritziz? (GAF-001/014)

Baserri inguruan beherantz doala uste du, eta hiriguneetan gorantza. Galeraren errua gurasoei egozten die.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2025-11-28

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com